

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

**Alkatearen 2023ko urtarrilaren 24ko Ebazpena, tradizio herrikoia berreskuratzeko jarduerak egiteko dirulaguntzen 2023ko deialdia egiten duena, norgehiagoka prozeduraren bidez**

BDNS(Identif.): 672567

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdns-trans/GE/es/convocatoria/672567>).

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorri, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan dago ikusgai: ([www.infosubvenciones.es](http://www.infosubvenciones.es)).

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

Dirulaguntza honen xede diren jardueretako edozein egiten duten udalerriko elkarteak eta kontzejua izango dira onuradunak.

#### **Bigarrena. Xedea**

Deialdiaren xedea da udalerriko elkarteei eta kontzejuei laguntzen dieten dirulaguntzen kontsezioa arautzea, ahazten ari diren herri tradizioak (hala nola "Santa Agata", "Lardero osteguna", "Jaiotza bizidunak", "Olentzero eta Mari Domingi", "Erre Pui Erre" eta "Erregeen desfilea") berreskuratzeko jarduerak antola ditzaten.

Gastu hauek diruz lagundu ahal izango dira:

Santa Agata, Lardero osteguna eta Erre Pui Erre: joaten direnei txokolatea, salda eta gaztainak eskaintzeko osagaiak.

Olentzero eta Erregeen desfilea: jantzien alokairua, joaten direnei txokolatea, salda, gaztainak eta karameluak eskaintzeko osagaiak.

Jaiotza bizidunak: jantzetan egindako gastuak (oihalak eskuratzeko, jantziak egitea, alokatzea), dekoratuak eraikitze materialak eta antzetzeko behar diren elementuak.

Deialdi honen xedearekin bat datozen eta osoko bilkurak onar ditzan aurkezten diren beste proposamen batzuk: jarduera motaren arabera baloratuko da, ahal den neurrian aurreko ataletako edozeinekin parekatuz.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak udalbatzaren 2020ko urriaren 26ko bilkuran aldatu eta urtarrilaren 8ko 2/2021 ALHAOn argitaratu ziren.

#### **Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa**

Aurreikusitako gastuaren ehuneko 90erainoko dirulaguntzak eman ahal izango dira, muga hauekin:

Santa Agata, Lardero Osteguna, Erre Pui Erre: 50,00 euro.

Olentzero eta Mari Domingi eta Erregeen desfilea: 300,00 euro.

Jaiotza bizidunak: 1.000,00 euro.

Deialdi honen xedearekin bat datozen beste proposamen batzuk, Udalbatzak onetsiak: 50,00 euro.

**Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea**

Eskaerak egingo dira oinarrien I. eranskinean ageri den ereduan, oinarrietan jasoriko dokumentazioa aurkeztu beharko da, eta aurkezteko epemuga 2023ko azaroaren 30a izango da.

**Seigarrena. Eskaerari erantsi beharreko agiriak**

Egin nahi den jardueraren proiektua edo memoria, sinatuta.

Jarduerarako aurreikusitako aurrekontua.

Lortu ahal diren beste dirulaguntza batzuen zerrenda.

Dirulaguntza jarduera egin ostean eta elkarateak edo kontzejuak emandako dirulaguntza ordaintzeko eskaria aurkeztu eta gero ordainduko da.

Ordaintzeko eskaera udalak onartutako ereduan egingo da (II. eranskina) eta harekin batera dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

Egindako jardueraren memoria, arduradunak izenpetuta. Bertan, honako hauek zehaztu beharko dira: jarduera, emandako dirulaguntza, egin den eguna eta parte hartzaile eta onuradunen kopurua, desberdinak badira.

Lortutako beste dirulaguntza batzuen ebazpena.

Egindako jardueraren argazkiak edo grabazioak.

Jardueran egindako gastuen eta diru sarreraren zerrenda, arduradunak izenpetuta.

Emandako dirulaguntzaren zenbateko berdinari edo handiagoari dagozkion gastuen faktura originalak, onuradunaren izenean eginak. Faktura horietan argi eta garbi adierazi beharko da zer kontzepturengatik eman den, bai eta dagozkion BEZa eta horiek ordaindu izanaren egiaztagiriak ere.

Elektronikoki sinatutako agiria.

Dura, 2023ko urtarrilaren 24a

*Alkatea*

*M<sup>a</sup> BLANCA ANTÉPARA URIBE*